

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2013ko uztailaren 4a. IX. urtea. 2.622. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Iurreamendi, Amarotz eta Alde Zaharrean, festak nagusi

San Fermin eguna inguratu ahala, Tolosako hiru auzoetan festa usaina izan ohi da; Amarotzen izango da egitarau zabalena 02

Balkoi, Lorategi eta Baratze Lehiaketetan izena eman daiteke

Berastegiko Udalak hiru lehiaketa antolatu ditu eta hilaren 12a baino lehen eman beharko da izena 07


Irura eta Anoetako euskara ikasleek diru laguntzak izango dituzte

Euskara ikasi edota UEU eta EHUko ikastaroak egiteagatik emango dituzte laguntzak udalek 05

→ **Izen berria martxan.** Bidegoiango Udala herriari izena aldatzeko lanetan ari da, eta irailerako guztia prest izatea aurreikusten dute. Euskaltzaindiaren gomendioei jarraituz, Bidania-Goiatz izango da izen berria. Hurrengo urtean bertan ospatuko den Eskola Txikien festak eragin handia izan du izen aldaketan. 06

Arrantzaleen emazteen istorioa kontatuko du Oinkarik, Leidorren

Villabonako Oinkari dantza taldeak eta Hika Teatroak elkarlanean 'Itsasoaren emazteak' ikuskizuna estreinatuko dute, hilaren 12an 04



Musika, dantza eta antzerkia uztartuko dituzte emanaldi berrian; Leidorren ari dira entseguak egiten. I. TERRADILLOS



XVII. HITZA Udako argazki lehiaketa

Bidali zure argazkia
thargazkiak@hitza.info
helbidera!



Sari
mundialak!



Mozorroek jantziko dute Tolosako Amarotz auzoko jaietako lehen eguna

Urteroko moduan, San Ferminekin bat eginez, Alde Zaharrean eta Iurreamendin ere jaiak izango dira

Itzea Urkizu Tolosa

Uztailako lehen asteburua gorri margotu ohi dute Tolosako Amarotz auzoko bizilagunek, jaiak antolatzen dituztelako. Duela bizpahiru urtez geroztik, mozorro gauak hartu ohi du jaietako lehen iluntzea, eta aurten ere halaxe izango da. Ez da, ordea, Amarotz izango Tolosan jai giroan ariko den auzo bakarra. Izan ere, San Fermin jaiekin bat eginez, Iurreamendi auzoan eta Alde Zaharrean ere sortu dute festarako aitzakiarik.

Iurreamendi auzokoak izango dira jaiak abiarazten lehenak, gaur bertan futbol partidak izango baitituzte; helduak ariko dira alde batetik, eta haurrek bestetik. Bihar, berriz, Suziria botako dute, eta haurrentzako entzierroa nahiz Larrain dantza izango dira ekitaldi nabarmenenak.

Alde Zaharrean egun bakarreko jaiak antolatu dute, eta Plaza Berria izango da festa gune. Aipatzekoa da, barrikoteko edarirako txartelak erosi beharko direla aurretik; gaur eta bihar izango da horretarako aukera, Plaza Berrian bertan, 18:30etik 20:30era bitarte. Helduen txartelek 3 euroko prezioa izango dute, eta haurrek ez dute ordaindu beharko. Horrela, txartelen diruarekin jaien gastuak ordainduko dituzte antolatuzaileek.

Azkenik, Amarotz auzoan bihar botako dute jaiak abiarazteko Suziria, eta mozorro gaua izango da lehen eguneko jarduera nabarmena. Asteburu osoan luzatuko dira, ordea, jaiak, eta besteak beste, larunbatean Wainot, Rei Kimera eta Atila y los Unos taldeen emanaldiak izango dira. Igandean, berriz, aurrekua dantzatuko dute auzotarrek.



Iurreamendi auzoko jaietan iaiz egin zuten, lehenengoz, Larrain dantza. HITZA

↓ Tolosako auzoetako jaiak asteburuan

AMAROTZ

■ Uztailak 5, ostirala.

16:00. Suziria eta buruhandiak.

16:30. Haurrentzako jolasak festagunean.

18:00. Beti Gazteak lokalean karta-jokoan finala: eskoba, sei-ko, txintxon eta punttua.

18:30. Txokolate jatea, eta Circortito taldearen *La risa es bella* antzerki emanaldia.

20:00. Tolosako Musika Bandaren kontzertua.

20:30. Triki poteoa.

21:30. Mozorro gaua. Auzo afaria eta DJ Bull goizaldera arte.

■ Uztailak 6, larunbata.

08:00. Auzoaren garbiketa Txkun Txarra Zaharra taldearekin.

10:00. Diana Konpenezinaren txarangarekin.

10:30. Haurrentzako puzgarriak eta jolasak.

12:00. Ajoarriero lehiaketa.

12:30. Amarozko haurren dantza emanaldia.

14:30. Ajoarriero lehiaketako sari banaketa, eta auzo bazkaria.

15:00. Puzgarriak eta jolasak.

16:00. Mus txapelketa Ekaitz tabernan, auzokoentzat.

17:00. Antzerkia Xabier Larreakin: *Mr. Frack*.

18:00. Herri kirolak. Ernesto Ezpeleta *Bihurri* aizkolariak erakustaldia egingo du.

21:00. Euskarroa eta play-back-a haur eta helduentzat. Ondoren, afaria.

23:00. Kontzertuak: Wainot, Rei Kimera eta Atila y los Unos.

■ Uztailak 7, igandea

09:30. Diana Giroarte dultzaina taldearekin. Ordu berean, meza auzoko hildakoen alde.

11:00. Artisautza eta mineral erakusketa festa gunean.

11:30. Futbol txapelketa 6 eta 12 urte arteko neska-mutilentzat.

12:00. Amarozko dantza taldearen emanaldia.

14:30. Auzo bazkaria Konpenezinaren taldeak girotuta.

18:00. Kalejira auzoan barrena.

19:30. Aurrekua.

20:00. Sardina jatea DJ Sorpresak girotuta.

24:00. *Bukatu da, bukatu da, bukatu da se acabó...* 2014ko uztailaren 4ra arte.

IURREAMENDI

■ **Uztailak 4, gaur.** Futbol partidak haur eta helduentzat. Ondoren, auzo afaria norberak etxetik eramandako jakiekin.

■ **Uztailak 5, ostirala.** Suziria botako dute, eta jarraian haurrentzako entzierroa nahiz haur jolasak izango dira. Ondoren, Larrain-dantza eta auzo-afaria egingo dituzte.

■ **Uztailak 6, larunbata.** Toka txapelketa auzokoen artean eta krosa. Ondoren afaria.

ALDE ZAHARRA

■ Uztailak 6, larunbata.

12:00. Txupinazoa.

12:30. Patata tortilla lehiaketa egingo dute.

14:30. Herri bazkaria. Barrikotea, etxetik eramandako jakiekin.

17:00. Zezenak eta buruhandiak.

18:30. Txokolate jatea.

20:00. *Gaixoa ni!*

Egun osoan. Puzgarriak eta tailerrak.

Atzerriko praktiketarako diru laguntzak Tolosaldea Garatzenen

I. Urkizu

Global Training Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak hainbat erakunderekin batera sustaturiko programa da. Tolosaldea Garatzen ere tartean da, eta horrela, eskualdeko 30 urtez azpikoentzat atzerrian praktikak egiteko 10 beka eskainiko dituzte.

Unibertsitate edo goi-mailako lanbide heziketa egin duten ikasleei aukera eman nahi diete atzerriko enpresa eta erakundeetan praktika ordainduak egiteko, beren ikasketekin lotuta.

Modu honetara, sei hilabeteko iraupena izango dute 10 beka hauek, eta hilero 1.124,77 euroko diru laguntza jasoko du bekadun bakoitzak. Praktikak egin ahal izateko herrialdeak, berriz, Argentina, Brasil, Erresuma Batua, Italia, Belgika eta Errumania izan daitezke.

Beka jasoko duten gazteek profil komertziala izan beharko dute. Horrela, unibertsitate ikasketei dagokienez, ekonomia, enpresaritza, ingeniariaritza, soziologia, turismo, biologia, gizarte lan edota psikologia lizentziatuak izan beharko dute; goi mailako heziketa-ko hautagaiei dagokienez, berriz, elektronikak, automatizazioa eta mekanika ikasketak dituzten gazteen izango dute beka jasotzeko aukera.

Global Training beka jasotzeko izena emateko epea uztailaren 15era arte zabalik izango da, eta informazio gehiagorako, 943 65 45 01ra dei egin daiteke, eta baita lehiberri@lehiberri.net helbidera idatzi ere.

→ Laburrak

Ibarrako kirol elkartearen ohiko batzar orokorra

IBARRA › Ibarrako kirol elkartearen batzar orokorra ospatuko dute bihar, 21:00etan. Gai garrantzitsuak jorratuko dituztenez, bazkide guztiei eskatu diete bertaratzea.

Amezketan txalaparta ikastaroko izen-ematea

AMEZKETA › Irailean hasiko den oinarritzko txaparta ikastaroan izena eman daiteke uztailaren 10era bitarte. 695 71 26 10ean informazio gehiago eskuratu nahiz izena eman daiteke.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Igor Agirre (Jainekin, Muthiko Alaiak), Xabier Zelaia (Iraunkorrek, Oberena) eta Josu Sanchez (Incansables, Alegria de Iruña) euren peñetako zapiekin. M.IRAOLA

Tolosako Iraunkorrek, Incansables eta Jainekin txarangak Iruñeako San Fermin jaietan izango dira igandetik aurrera. Lan honen ezaugarriak eta alde on, zein txarrak zein diren azaldu dituzte partaideek.

Txaranga munduko txanpionsa

Mikel Iraola Tolosa

Tolosa herri txarangeroa dela esan ohi da. Ohitura eta zaletasun ugari dago zentzu horretan, txarangek inauterietatik duten loturagatik batik bat. Inauterietan ez da txaranga baten doinu alaiak betetako kalerik.

Gauza bera gertatzen da Iruñeako San Ferminetan. Zer lirateke San Ferminak, peñak ez baleude? Eta zer lirateke peñak txarangarik ez balego? Eta nola ez, kolore zuri eta gorri zintatutako jendetza horren tartean, badira Tolosatik joandako txarangak. Hiru dira hain zuzen ere: Iraunkorrek, Incansables eta Jainekin.

«Txaranga munduko txanpionsa» omen dira San Fermin jaiak, bertan izaten baitira «inguruan aurki daitezkeen txarangarik hoberenetakoak, hoberenak ez esatearren». Horrelaxe definitu dituzte Xabier Zelaia, Josu Sanchez eta Igor Agirre tolosarrek munduko festa entzutetsuak. Hiru urteko txarangek daramatzate uztailaren 7tik 14ra Nafarroako hiriburuko kaleak musikaz alaitzen.

Zelaia da urte kopuru gehienetan izan dena. Bederatzi. Iraunkorrek txaranga tronpetajolea da bera. Taldeak, aldiz, aurtun 20. urte egingo du Oberena peñarekin. «Txarangako kiderik zaharrenetako bat aurtengo pankar-

rik marraztu dute omenaldi gisa», dio.

Josu Sanchezek bonbardinoa jotzen du Incansables txarangarekin. Taldeak 19 urte daramatza Alegria de Iruña peñarekin San Fermin jaiak igarotzen. Sanchez, berriz, azken zazpi urte hauetan izan da.

Jainekin Txaranga da guztietan gazteena. Hiru urtez izan da Muthiko Alaiak peñarekin, nahiz eta bertako partaide gehienek bosgarrena duten aurtengoa peña berarekin. Igor Agirrentzat ere bosgarrena izango da.

Urte osoan entseguak egiten ibili ondoren, hainbeste prestatutako hori kalera ateratzeko ordua iritsi zaie, igandetik aurrera zortzi

Musikarien lana gogorra dela diote, baina disfrutatzeo denbora ere hartzen dute

egunez arituko baitira instrumentuak gogor astinduz. «Inauterietatik aurrera, bakalosteko deskantsuaren ondoren, eskuza pieak eta biserak hartu eta zezen plazarako bidea egiten dute peña-

tik irtenda. Musikarientzat uenrik «deserosoena» dela diote.

Izan ere, zezen plazan peñen arrotan giro itzela egon arren, desgastatu egiten duela diote. «Hasteko, eguzkiaren parean hiru ordu pasa behar izaten ditugu, eta sekulako beroa egoten da. Leku gutxi izaten dugu. Behin baina gehiagotan zorabioak izan dira, eta uneoro freskatzen egon behar izaten dugu».

Hori gutxi balitz, goiko solairutik «edozer» eror daitekeela diote: Jack Daniels botila batetik, kolkoetik behera eroritako zigarro, albondiga, langostino buru, sangria baldekada, edo gonbitoraino. Bus-tibusti eta zikin-zikin eginda ateratzen dira plazatik. «Horregatik eramaten ditugu eskuohialak. Zezen plazara joatean badakizu zer topatuko duzun, eta pazientziarekin joatea da hobereena».

Sufritu bai, disfrutatu ere bai
Apustuak, lesioak, parrandak, gaiztakeria txiriken bat... Orotarik bizipenak izan dituzte urte hauetan guztietan zehar. Sanchezek badu une kuttun bat: «Entzietan gaizte bat hil zen zezenak harriputa, eta arratsaldeko zezen ketaren aurretik *El Silencio* izenez eta gauez irtetea ere tokatzen zaien noizean behin. Arratsaldeko bostetatik aurrera, bakalosteko deskantsuaren ondoren, eskuza pieak eta biserak hartu eta zezen plazarako bidea egiten dute peña-

Peñako kideekin egindako erla-

zio estuak ere nabarmetzen dituzte. «Hurbiltasuna handia da, eta integratuta gaude. Jaietan, peñako parte gara. Oso ondo zaintzen gaituzte eta hori eskertzekoa da». San Ferminez gain, urtean zehar ere batzen dira beste hainbat ekintza ospatzeko. Agirrek ere «euskal giroa» nabarmetzen du: «Muthiko Alaiak estandarte bat da zentzu horretan, giro euskaldunaz izatea eskertzen dugu».

Izan dira beste une eza hain aberasgarriak. «Espainiak Munduko kopa irabazi zuen urtean giro oso nahasia izan zen. Borroak ikusten ziren kalean, eta tentsioa nabaritzen. Ez zen giro». Bestalde, jende asko izaten da, eta hori batzuetan arazo bilakatzen da. «Asko atzerrikoak dira eta ez dituzte gure ohiturak ezagutzen. Txaranga errespetatu egin behar dira, min hartzeko arriskua baitauek. Horretan ere peñako kideen laguntza ezinbestekoa izaten dugu».

Zortzi egunak jo eta suibiltzeak, baditu bere alde on eta txarrak. «Disfrutatu egiten dugu eta oso ondo pasatzen dugu, bai jotzen, baita parrandaren bat edo beste egiten ere». Izan ere horretarako tartea ere hartzen dute musikariek. Bakoitzak bere eginbeharrak amaitzean, Jarauta kalean elkartzen dira guztiak parranda egiteko, «hori ere egin behar izaten baita. Aprobetxatu egin behar dugu han gaudela».

Baina sanferminak disfrutatu nahi izate horrek, ondoren sufritzea dakar, izan ere, bete beharreko konpromiso eta ordutegiak daukate: «ez dugu ahaztu behar azken finean, gu lanean gabiltzala». Horregatik, «indarrak neurtzea, zaintzea eta deskantsatzeo izaten ditugun tarteak ondo gestionatzea» oso garrantzitsua dela diote. «Azkenean norberaren esku dago, baina merezi du esfortzu horrek».

Ez dira bakarrik

Iraunkorrek, Incansables eta Jainekin ez dira, baina, Iruñean izaten diren txaranga tolosar bakarrik. Bonberenea Txaranga egun batez izaten da Jainekinekin batera Muthiko Alaiak peñarekin. Konpenezinak taldeak ere urteak daramatza euren kontura egun pasa eginez.

Musikariez gain, euren emazteak ere joan izan ohi dira eta talde handia biltzen dira. Peña Union ere bere txarangarekin joaten da larunbatetan.

• tolosa@hitza.info



Villabonako Oinkari dantza taldeak eta Hika Teatroak elkarlanean 'Itsasoaren emazteak' ikuskizuna estreinatuko dute uztailaren 12an Tolosako Leidor aretoan; arrantzaleen emazteen istorioa kontatzen du.

Itsasoaren emazteen dantza

Iñigo Terradillos Amasa-Villabona

Arrantzaleen emazteek sentitzen duten bakar-dadearen gogortasuna. Alargunak nahiz senarra itsasoan duenak. Antzerakoa da sentimendua bi kasuetan, bietan nagusitzen baita bakar-dadea. Maiz hitz egin izan da arrantzaleen inguruan, baina ez gehiegitan euren emazteek sentitzen dutenaz. Bada, itsasgizonen bi emazteren istorioa kontatuko dute dantzaren, antzerkiaren eta musikaren bidez Villabonako Oinkari dantza taldeak eta Hika Teatroak elkarlanean burutu duten lan berrian.

Oinkari dantza taldeko Eneko Arteagak dioenez, «dantza emanaldi bat baino gehiago» da Tolosako Leidor aretoan uztailaren 12an estreinatuko duten *Itsasoaren emazteak*: «Dantzariek garrantzia izango dute, baina, horrez gain, lau musikari ariko dira zuzenean, eta bi aktore taula gainean». Horrela irudikatuko dute arrantzaleen emazteetan oinarrituriko itsas giroko istorioa.

Duela urtebete hasi zen gutzia. Oinkari dantza taldeko arduradunak Hika Teatroko Agurtzane Intxaurrearekin jarri ziren harremanetan, eta euren ikuskizun berria berak zuzentzea proposatu zien. Pello Ramirez musikariak ere parte hartuko zuela argi zuten Oinkariok. «Hika antzerki taldeko zuzendaria da Agurtzane; Lan pare bat lehenagotik elkarrekin eginak bagenituen, *Amantalen ahoitsa* ikuskizuna kasu, eta oso esperientzia onak izan dira. Era berean, garbi genuen, musikariak azkenaldian egin dituen kola-



Estreinaldiaren egunera arte Leidorren ari dira entseguak egiten Oinkariko dantzariak. I.TERRADILLOS

borazioengatik Pello ere bertan izatea nahi genuela, bere musika oso gustuko dugu, eta oso aberasgarria iruditzen zaigu», adierazi du Arteagak.

Bada, Agurtzane Intxaurrearekin batera, Pello Ramirezen etxera joan ziren, eta konposatzen ari zen abestiak entzun zituzten. «Agurtzane esan zion bere musikak itsasoa ekartzen ziola burura, eta une hartan zehazturik geratu zen ikuskizunaren gaia itsasoa izango zela». Istorioa osatuz joan ziren, Intxaurrea arduratu zen gidoia prestatzeaz, eta urtarrilean hasi ziren dantzak lantzen.

Villabonako dantza taldetik sortu zen ideia pixkanaka handituz joan zen, eta Hika Teatroa ekoizle moduan sartu zen euren

kin batera. «Gu herriko dantza talde bat gara, eta Hikakoak, berriak, profesionalak dira, antzerkiak bizi dira. Horrek, batetik, ikuskizunaren tamaina handitu du, ardura handiagoa izan da guretzat, eta batez ere, entseguen intentsitate mailan nabaritu dugu; bestetik, profesional handiekin lan egiteko aukera eman digu», dio Eneko Arteagak.

Izan ere, ibilbide luzeko artistak izango dira taula gainean. Musikari dagokionez, Pello Ramirezekin batera, beste hiru musikari zuzenean ariko dira. Emazteen paperean Miren Gojenola eta Agurtzane Intxaurrea sartuko dira, eta dantzan, Oinkariko 51 dantzari. Gainera, Intxaurrearekin batera, Kukai dantza taldea ere aritu da koreografiak lantzen.

Oinkariko dantzariak estreinaldiaren eguna iristeko irrikak daudela onartu du Arteagak: «Azken asteak oso gogorrak ari dira izaten, eta horregatik esker-tzekoa da dantzari gazteak egiten



Entseguak gogorrak ari dira izaten, eta Oinkariko dantzariak antzetzeta izan da gogorrena»

ENEKO ARTEAGA
Oinkari dantza taldea

ari diren esfortzua». Dantzari, aktore eta musikariaren uztarketa «oso naturala» izan dela dio, eta Villabonako taldeko benetan «gogorra» egin zaiena interpreta-

↓ Datuak

- **Ikuskizuna.** *Itsasoaren emazteak*.
- **Egileak.** Oinkari dantza taldea eta Hika Teatroa.
- **Zuzendaria.** Agurtzane Intxaurrea.
- **Dantzariak.** Oinkari dantza taldea.
- **Koreografiak.** Maider Oiarzabal (Kukai dantza konpainia) eta Hika Teatroa.
- **Aktoreak.** Miren Gojenola eta Agurtzane Intxaurrea.
- **Musika.** Pello Ramirez.
- **Estreinaldia.** Leidor aretoan, uztailaren 12an, 22:30ean.

zioa lantzea izan dela azaldu du. «Dantziatik gatoz, eta orain arte gure esfortzu osoa dantza txikun egitera bideratzen genuen, beraz, interpretazioko hainbat eskola jaso beharra izan ditugu».

«Oinkari desberdin bat»

Orain arte entseguetan ikusita-koarekin «oso gustura» daude. Hori bai, Oinkari «ezberdin» bat ikusiko dutela Leidorrean gerturatzeko dio Arteagak: «Gu ohituta gauden esparrutik dezent mugituko gara, dantza garaiki-deak ere bere zatitoxa izango du, eta ez du izango zerikusirik orain arte ikusi denarekin».

Leidorreko estreinaldiak «garrantzi handia» izango du, «bertan paper ona eginez gero emanaldiak ateratzen joango baitira». Halaber, aurrera begira etorriko diren emanaldiek aukera emango diete euren ohiko esparruetatik irten, eta antzokietan emanaldiak eskaintzeko.

berria bekak
2013

Norentzat:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa
zortzi beka

EZAUGARRIAK:

- Bederatzi hilabeteko iraupena, irailetik ekainera
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkarietzan

Gutuna

Herriaren garaia da

Anoetan hondakinen atez ateko bilketa sistemarekin hirugarren astea betetzera goazen honetan, herri mailan barnerrazten ari den krispazio giro hau eteteko garaia badela uste dugu.

Gure iritziz gaikako bilketa ondo egiteko egokiak diren baliabide batzuk eskura jarri zaizkigu anoetarroi eta hauei normaltasuneko erabilera emateak birziklatze tasa altuak eta herriko giroa lehengora itzultzea ekarriko dute.

Jadanik herritarren gehien-go gara bilketa prozesu honetan modu aktibo eta positiboa eragiten dugunak eta zorian agur bat eta eskerrak bidali nahi dizkiegu partaide guztiei. Modu pasiboan edota jarrera

aktibo eta negatiboarekin jokatzen duten horiei aldez, beste herritarrekiko begirunea eskatu nahi diegu, kaskagogorkeria batengatik beste anoetarrok ez baitugu beraien zaborra kaleratu botata jasan beharrik.

Pasa den asteburuko herri galdeketa ere argi ikusi da gauzak ondo egitearen aurka indarrak pilatzen ari diren horiek herritarren gutxiengo bat direla. 450 pertsona kontatu ziren bozketarako aukeratu zuten gunean sartzen (zentsoaren %31), jakinik batzuk behin baina gehiagotan egin zutela sartu-irtena eta herritarrak ez zirenak ere tartean zirela.

Patxi Amantegik berak ere onartu du parte hartzea oso baxua izan dela eta egoera na-

hastu eta gaizto batean sartu garela, gaiaren benetako funtza ahaztuz.

Oraingoan ados gaude berekin eta herritarrak gonbidatzen ditugu alderdikeriak alde batera utzi eta bakoitza bere etxetik hasita bilketa egoki bat egitera.

Anoetar guztioi gogoeta pisika bat egitera animatu nahi zaituztegu, auzi honetan oinarriko baloreak zein diren aztertuz; demagogia bidez lortutako eta ondorio positiborik izan ezin dezakeen aste batzuetako egoskorkeria, edo guretzat eta gure ondorengentzat bizileku duin bat uzteko hartu behar dugun konpromisoa.

■ **Anoeta Zero Zabor Taldea.**

→ Laburrak

Datorren asteburuan, Pirinioetara irteera

AMASA-VILLABONA ▶ Uztailaren 14rako Pirinioetan mendi ibilaldia antolatuko du Aizkardi mendi taldeak. Santa Elenatik Usabas mendira igoko dira eta ondoren bi bide aukeratu dituzte. Interesatuak 649717182 zenbakira deitu beharko dute izena emateko igandea, hilaren 7a, baino lehen.

Interneten oinarri buruzko ikastaroa doan KZ gunean

ANOETA ▶ Interneten oinarri buruzko ikastaroa eskainiko du Anoetako KZguneak uztailaren 8tik 19ra. Bi orduetako jarri dituzte aukeran: asteleheneetik ostiralera, 09:00-11:00, eta 11:00-13:00 bitartekoak izango dira. Ikastaro gehiago ere eskaintzen ditu Anoetako KZguneak doan: e-administrazioa, nola egin tramiak on-line erakundeekin, GoogleApps, Ikus-entzunezkoak, Sare sozialak, Software librea edo IT txartela, besteak beste.

Blusen eguna ospatuko dute uztailaren 13an

ZIZURKIL ▶ Blusen eguna ospatuko dute uztailaren 13an, larunbatean, Zizurkilen. 11:30ean emango diote hasiera egunari. Patatak errioxar erara sukaldatze lehiaketa izango da. Ondoren, 14:00etan bazkaria egingo da plazan. Sukaldatzeko suak bertan izango dira, eta lekua uztailak 7a, igandea, baino lehen hartu beharko da udaletxean. Gugaz taldearen eskutik erromeria izango da 18:30ean, eta 00:30ean Rockalean elektrotxarangak joko du.

Euskara ikasleei diru laguntzak emango dizkiete

Irura eta Anoetako udalkek euskara ikasi edo UEU eta EHUko ikastaroak egiteagatik emango dituzte

M. Iraola

Euskarazko ezagutza eta erabilera sustatzeko hainbat diru laguntza banatuko dituzte Anoeta, Irura eta Amasa-Villabonako udalkek UEU eta EHUko udako ikastaroetan matrikulatu diren ikasleei, eta urte osoan euskaltegiaren eta barnetegietan euskara ikasten ibili diren pertsonen.

UEU eta EHUko udako euskarazko ikastaroetara matrikulatu direnen kasuan, Anoeta eta Irurako udaletxeetan uztailaren 17ra bitarte izango dute zabalik eskariak aurkezteko epea. Eskaera orriaz gain, nortasun agiriaren fotokopia, lan egoera ziurtatzen duen agiria, kontu korrontearen jabea zarena ziurtatzen duen banketxeak sinatutako agiria, matrikularen ordainagiria, unibertsitateak emandako agiria eta Aldundiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen dituen agiria aurkeztu beharko dira.

2012-2013 ikasturtean eta 2013ko udan euskara ikasiko dutenei ere

beste diru laguntza mota bat zabaldu diete Irurako eta Anoetako udalkek.

Bi eskaera mota egin daitezke: bata, ikasturte osoko ikastaroetarako; eta bestea ikasturte osokoak ez direnetarako. Lehenaren kasuan, anoetarrek eskaerak egiteko azken eguna azaroaren 9a izango da, eta iruratarrek urriaren 31n. Ikasturte osokoak ez diren ikastaroetarako, berriz, matrikula egin eta gehienez ere 15 egunera aurkeztu beharko da eskaeria.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa bera da bietan: eskabide orria, NAN fotokopia, banketxeak agiria, matrikularen ordainagiria, zerga betebeharren agiria, Lanbidetako txostena lan egoeraren inguruan, eta euskaltegiak emandako ziurtagiria.

Amasa-Villabonan ere bai

Amasa-Villabonako Udalak ere diru lagunduko ditu euskara ikasleak. Diru laguntza hauek eskatzeko epea bihar amaituko da, eta interesatuak honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte: NAN fotokopia, euskaltegiak emandako asistentziari buruzko agiria, matrikularen gastuari buruzko datuak, eta kontu baten 20 digituak. Informazio gehiago, Euskarara Zerbitzura joan edo 943693501 telefonora deitu daitezke.

Saldías Miguel
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA
www.saldias-miguel.com

% 60 arteko aurrezkia

- Autoak
- Motoak
- Furgonetak
- Kamioiak
- Etxebizitzak
- Komertzioak
- Komunitateak
- Istripuak
- E.P.S.V
- Osasuna
- Inbertsioak
- etb.

Zazpiburrieta, 14 • 20200 **Beasain** • Tel.: 943 085 600
San Juan kalea, 6 • 20270 **ANOETA** • Tel.: 943 698 004
Nafarroa Etorbidea, 12 behe • 20400 **Tolosa**
Tel. 943 651 189

Bidegoian herriari Bidania-Goiatz izena jarriko diote urte amaierarako

Hurrengo urtean ospatuko den Eskola Txikien festa eragin handia izan du izen aldaketan

Asier Imaz Bidegoian

Bidegoiango Udala herriaren izena aldatzeko lanetan dabil. Aurrikuspenen arabera, irailla inguruan dena prest izan nahi dute, Bidania-Goiatz izena modu ofizialean aurkezteko. 2014ean Gipuzkoako Eskola Txikien festa Bidania-Goiatzen egingo da, eta ospakizun garrantzitsu hori baliatu nahi dute izen berriari indarra emateko. Baliatzaile izateaz gain, suspertzaile ere izan da eskola txi-

kien festa Joxe Ramon Goikoetxearen esanetan: «Izen aldaketari bultzada eman dio jaiak, eta Gipuzkoako Eskola Txikien festa, hurrengo urtean, Bidania-Goiatzen egin nahi da. Bestalde, hemen Bidaniakoek bidaniarrak direla esango dute, eta Goiatzekoek goiaztarrek».

Izen aldaketaren ideia ez da udal ordezkariena soilik izan, urte luzeetako bilakaera baizik. Horrez gain, parte hartzea bultzatzeko, udalak herrian bandoa zabaltzen zuten, bidaniarrek eta goiaztarrek euren ekarpenak edo iradokizunak egin ahal izateko.

Urratsez urrats eta burokraziaren epeak betez, Bidania-Goiatzera iristen ari da udala: «Apirilaren 24ean hartu zuen udalbatzak izena aldatzeko erabakia. Gipuz-



Gipuzkoako Eskola Txikien festa, 2014an, Bidania-Goiatzen egingo da. HITZA

koako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, eta Euskaltzaindiari eskatu zaio txostena. Ondoren, udalak hartuko du berriro erabakia, eta azkenik, espediente osoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku utziko da, bai edo ez esan dezaten».

Izenaren ibilbidea

1964. urtean Goiatz eta Bidania elkartu zituzten udal baten barruan. Bidegoian izena jarri zioten herriari. 1990. urtean, orduko udalak izena euskaratu beharra zegoela erabaki zuen, eta otsailaren 28 hartan batzar erabakitzailea egin zuten. Izen ofiziala euska-

ratze aldera, legeak agintzen zuen bideari ekin zioten. Bidegurutzean, ordea, segidan aurkitu ziren. Euskaltzaindiaren txostenak izena euskaratu baino, Bidania-Goiatz jartzea gomendatu zuen. Zalantza berri honen aurrean, Bidegoian bere horretan gelditu zen.

1997an, udalak saiakera berri bati ekin zion. Eusko Jaurlaritzatik, izena euskaldundu gabeko herri bakarra zirela esan zion Bidaniako eta Goiatzeko herritarrei. Horren aurrean, udalak erabakia hartu eta Bidegoian ordez Bidegoian ofizialdu zuen urte horretan. Euskaltzaindiak egin

zuen txosten berria zaharraren bidetik joan zen ordea, hau da, euskara jatorrean eta artifizialtasun gabeko izen egokiena Bidania-Goiatz zela errepikatu zion Bidegoiango Udalarri. Zalantza zaharrak berriro arren, eman zen urratsa hizki bakarrera mugatu zen.

Legealdi berriarekin etorri zen izena erabat aldatzeko kementa. Alkateak aipatu bezala, erabakigarria izan da eskola txikien festaren itzulera. Legearen errotua errespetatuz eta egin beharrek eginez, Gipuzkoako Eskola Txikien festa Bidania-Goiatzen ospatuko da 2014ko ekainaren 8an.

Irudia › Alegia



SUTARRIREN IKASTURTE AMAIERA

Alegiako Sutarri Dantza Taldeak ikasturte amaierako txangoa egin zuen joan den larunbatean, Vianara. Honela, urteari merezi zuen amaiera eman zioten, eta bide batez, gainean dituzten herriko jaietan eskainiko duten emanaldirako inda-

rrak hartu zituzten. Emanaldia hilaren 14ean izango da herriko plazan 12:30ean. Bestalde, dantza taldeak datorren ikasturterako dantza egiteko gogoz dagoen pertsona oro animatu nahi izan dute izena ematera. HITZA

→ Laburrak

Hitza pilota txapelketaren partidak Albizturren, bihar

ALBIZTUR › Hitza pilota txapelketaren partidak jokatu dira bihar, Albizturko frontoian. Alebinen mailako lau lehia izango dira bertan. Bestalde, finalak uztailaren 20an jokatuko dira Bidegoian, bertan 2014ean egingo den eskola txikien egitarauaren barruan.

Bikotekako paleta txapelketan, izen ematea

TOLOSA › Tolosa CFek bikotekako paleta txapelketa antolatu du. Izen ematea zabalik da, bihar arte, eta 656 71 92 63 edo 943 67 17 49 zenbakira deitu behar da.

Leitzaranen barrena bizikleta txangoa

IBARRA › Subegi Kultur Elkarteak egun pasa antolatu du Leitzaranen barrena. Leitzatik Andoainera ibilbidea bizikletaz egingo dute, uztailaren 13an edo 20an, eguraldiaren arabera. Haur, gazte zein helduentzat egin dute deialdia, eta izena emateko zerrendak herriko hainbat tabernetan jarri dituzte. Bazkaria Subegi elkarteak prestatuko luke.

Aranalderen epaketaren harira, hitzorduak

IBARRA › Uztailaren 9an epaituko dute Jokin Aranalde iheslaria Pauen. Ibarren hitzordua jarri dute bertara joateko, 05:30ean plazan. Arratsaldean, 19:30ean, batzar informatiboa egingo dute Ibarako plazan, epaketan gertatua azaltzeko.



Motxilak salgai 15 eurotan

Kolossal: Berdes eta beltza

Eskuratzeko deitu
943-655 695
telefono zenbakira
edo pasa HITZAko egoitzatik.
(Araba etorb. 5 behea • Tolosa)

Berastegiko Balkoi, Lorategi eta Baratze Lehiaketak martxan dira

Nahi duen herritar orok parte hartu ahalko du; izen ematea udaletxean egin beharko da hilaren 12a baino lehen

I. Terradillos Berastegi

Berastegiko Udaleko kultura batzordeak, aurreko Leihio, Balkoi eta Terraza Lehiaketa, Lorategi Lehiaketa eta Baratze Lehiaketa antolatuta nahi ditu. Parte hartu nahi duten herritarrek udaletxera deitu (943 68 30 00) beharko dute, edo udaletxeko harreara bulegora joan, uztailearen 12a baino lehen.

Parte hartzaileek euren datuak (izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia) eman beharko dituzte, zein txapelketatara aurkezten diren zehaztu (bat, bi edo hiruretan), eta Baratze Lehiaketan parte hartu nahi izanez gero, baratzea non kokatua dagoen adierazi beharko dute.

Izen ematea bukatu ondoren, goizean batzordekideak eta lorezaintza teknikaria etxex ibiliko dira puntuaketa egiten. Baratzeen kasuan, abuztu bukaeran edo irailaren hasieran barazki-



Berastegin ikus daitekeen balkoi ederretako bat. HITZA

teknikari batek egingo du balorzioa. Argazkiak aterako dituzte, eta Gaztainondo elkartearen jarriko dituzte ikusgai, herriko festetan, eta baita Berastegiko web-orrian ere.

Udaletik azaldu dutenez, puntuaketarako kontuan hartuko dute kolorea eta landareen barietatea eta konbinaketa, estetika eta txukuntasuna. Guztira bederatzi sari banatuko dituzte, modalitate bakoitzean hiru. Leihio, Balkoi, Terraza eta Lorategien lehiaketetako sari banaketa sa-

lontzotako herri afarian egingo dute, eta Baratze Lehiaketakoa, berriz, kultur astean, azoka egunean. «Ahalik eta partaide ezberdin gehien saritu ahal izateko», iazko garaileek aurreko ez dute saririk jasotzerik izango, baina datorren urtean bai, eta beraz, aurreko saria jaso ahalko dute 2011n sarituak izan zirenak.

Leihio, Balkoi eta Terraza Lehiaketa eta Lorategi Lehiaketa bosgarren urtez egingo dute aurreko, eta Baratze Lehiaketa, laugarrenez.



Pasa den urtean Ibarren egindako festaren une bat. IT.

Alegian elkartuko dira motozaleak, asteburu honetan

Larunbatean eta igandean motoekin loturiko hamaika ekitaldiz gozatzeko aukera izango da

Iñigo Terradillos Alegia

Ibarako Langostino Moto elkarteak bere urteroko hitzordu garrantzitsuena izango du asteburu honetan, Langostino Moto Festa, hain zuzen. Aldaketekin dator, gainera, izan ere, azken urteetan Ibarren egin badute ere, aurreko Alegian kokatzea erabaki dute. Larunbatean eta igandean izango da festa, eta hainbat ikuskizunez gozatzeko aukera izango da.

Larunbatean 15:00etan zabalduko dute izen emateko aukera, Route 33-n. 17:00etan show bike edo motoekin jolasak izango dira, eta 19:00etan ibilaldia egingo dute

motoz, Anoetako Cheyennen geldialdia eginez. 21:30ean afaria izango da Route 33-n, eta gauerditik aurrera kontzertuak Alegiako plazan. Lehendabizi Starblues taldea ariko da, eta ondoren, Boser taldea, eta tartean, urtero moduan, show erotiko mixtoa izango da ikusgai.

Igandean, berriz, 10:30ean abiatuko dira ibilaldi bat egitera, Mutiloan geldialdia eginez, eta Alegiara itzultzen direnean, 13:00ak aldera poteoa egingo dute herrian. 14:15ean bazkaltzeko elkartuko dira denak Route 33-n, eta sarien banaketa ere egingo dute. Azken ekitaldi horrekin emango diote amaiera XI. Langostino Moto Festari.

Bestalde, gaua bertan pasako dutenez Alegiako Udalak kiroldegia utzi die antolatzaileei, eta bi egunetan zehar motorren osagaiekin standak ere izango dira motozaleen eskura.

Udako Zinema izango da ikusgai Ibarako plazan

Gaur eta datorren ostegunean helduntzako filmak izango dira, eta hilaren 18an, gaztetxoentzat

I. Terradillos Ibarra

Aurreko urteetan egin duen moduan, aurreko Ibarako Udalak Udako Zinema antolatuta du. Be-

raz, nahi duen herritar orok San Bartolome plazan filmak ikusi ahalko ditu doan.

Filmak ostegunetan emango dituzte, gaur hasita. Hala, gaurkoa eta datorren osteguneko helduentzako filmak izango dira, eta uztailearen 18an emango dutena, berriz, gaztetxoei zuzendua izango da. Emanaldiak 22:00etan hasiko dira, eta Ibarako Udalak herritar guztiak gonbidatu ditu plazara gerturatuzera.

Auto batek haur bat harrapatu du Ibarako Euskal Herria kalean

Asier Imaz Ibarra

Auto batek haur bat harrapatu zuen atzo, Ibarako Euskal Herria kalean. Haurra zebra bidea gurutzatzen ari zen unean harrapatu zuen autoak, eta hankan hartu zuen min. Medikuek istripua gertatu zen lekuan bertan artatu zuten, eta ezer larririk ez zuten arren, ospitalera eraman zuten.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



22°
17°

GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	OSTARTIAK
BEROENA	24°
HOTZENA	17°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizalde: 687 410 118. leizalde@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak: BERTAKO HEDABIDEAK

Galtzaundi euskara taldea

eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alto, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Amasa-Villabona.** Aizkardi mendi taldeak, irteera antolatatu du Pirinioetara. Hilaren 14ean, izango da, eta izena hilaren 7a baino lehen eman beharko da. Izena emateko, 649 71 71 82 telefono zenbakira deitu edo elkartzetik pasa beharko da.

■ **Amezketeta.** Txalaparta ikastaroan izena emateko aukera dago. Irailen zehar egingo den oinarriko ikastaroa izango da. Hilaren 10a bitartean izena emateko aukera zabalik dago. Informazio gehiagorako edota izena emateko deitu, 695 71 26 10 telefono zenbakira.

■ **Ibarra.** Ibarrako Udalak euskara ikasten ari direnei zuzendutako diru laguntzak eskatzeko epea zabaldu du. Ibarran errol-datuei eta euskaltegi edota barnetegi batean euskara ikastaroa egina dutenei zuzendua da.

■ **Zizurkil.** Hilaren 13an ospatuko den Blusen egunean sukaldatu nahi dutenek izena eman beharko dute, udaletxean.

■ **Tolosa.** BOX.A Arte Elkarteak 3. Merkatu berezia antolatzen ari da, *Made in Tolosa* izenpean. Tolosarrak edota tolosaldekoak postua jartzera animatu nahi dituzte, eta aste honetan amaitzen da izena emateko epea. Eskuz eginiko lanak gauzatzen dituzten orori zabaltzen diote gonbidapena: artea, artisautza, gauza bitxiak, janaria, osagarriak... Hilaren 20an izango da, 16:00etatik 22:00etara, eta parte hartzea doakoa da. Izena gu@boxagara.com helbide elektronikoan eman behar da.

■ **Tolosa.** Euskara eta hizkera Sexistaren hitzaldia izango da, Irene Arrarats, *Berria*-ko euskara arduradunaren eskutik. Hilaren 18an, ostegunean, izango

da. 19:00etatik 21:00etara, Tolosako kultur etxean. *berdintasuna@tolosakoudala.net* edo 943 670383 telefono zenbakira deituz izena ematea komeni da.

ANTZERKIA

■ **Tolosa.** Amaroako XV. Antzerki Astearen barruan, 18:00etan, Bazen Behin Clown, Maria Maccozzi, kale ikuskizuna izango da, Amaroako auzo lokalean. 22:00etan, Amaroako auzo lokalean, Intujai Teatro, May Gorostiaga... presente!!! ikusteko aukera izango da.

JAIK

■ **Tolosa.** lurreamendi auzoan jaiel hasiera emango diete. Futbol partidak izango dira haur eta helduentzat. Ondoren, auzo afaria norberak etxetik eramandako jakiek.

ZINEMA

■ **Ibarra.** Udako zinema saioari hasiera emango dio, gaur, udalak. San Bartolome plazan eskainiko dute, 22:00etatik aurrera, helduei zuzendutako lehen filma.

■ **Tolosa.** Gaur, zine forumaren barruan, *En otro pais* filma jatorrizko bertsioan ikusteko aukera izango da, Leidor zinema aretoan, 19:15ean eta 21:45ean.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Tolosa



ARRAKASTAZ BETETAKO HITZORDUAK

Amarotz auzoan, aste osoan, antzerkia ari da izaten protagonista. Hamabosgarren urtez jarraian antolatatu dute Antzerki Astea. Larunbata bitartean, ordea, kale antzerkiaren gain, auzo lokalean eskainiko diren ikuskizunak gozatzeko aukera izan-

go da. Atzo -irudian- *Decopivolta*, *Doble cita* antzerki emanaldia izan zen, eta gerturatutako haur eta gurasok txiki utzi zuten aretoa. Gauean ere, helduei zuzendutako beste antzerki saioa izan zen. ITZEAURKIZU

Agurak

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●●● **agurak**

Mauka berria GAURKO ESKAINTZA

Menu berezia Kaialde jatetxean

Kaialde jatetxea
Polentzarrene, 6 behea
Lezo 20100 GIPUZKOA
Tel.: 943-51 20 03
contacto@lezkokaialde.com
www.lezkokaialde.com

Prezioa **29€**

berria taldea

www.mauka.eu

19-90

Euskal Herria plaza, 5 • TOLOSA • Tel.: 943 119 017